

Itsaso harroaren etengabeko oldarrak

Jon Joseba Aizpurua Antia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2006



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Itsaso harroaren etengabeko oldarrak

Jon Joseba Aizpurua Antia

Julene Azpeitia 19. ipuin lehiaketa

2009

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Jon Joseba Aizpurua Antia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

*“Ez inoiz etsi, itxaropenari eutsi:
dena galdurik dakusazunean ere
barren-barrenetik indar berriak
ateratzeko gai izango baitzara.
Hala gertatuz gero, bizirik
dirauzula esan nahiko du...
Oraindik behinik behin!”*

(Franz Kafka, *Gogoetak*)

-|-

Bi pilula gorri egunero, otorduen aurretik, eta beste bat oheratu baino ordubete lehenago, zorabioak saihesteko. Erdi-laranja, erdi-uridin kolorezko kapsula bat aldiz, goizero gosaritan, beherakada uneak edo eroraldiak ekiditeko, beti ere, bazkal aurreko pilula gorrien hartualdiarekin gutxienik hiru ordutako tarte gordeaz. Sendagaiekiko halako menpekotasunez antolatua zuen bizimodua Joanesek, egoera haren erantzule zuzena Alaitz, bere emazte maitagarria zelarik. Hala zen: Alaitzek, bere nekaezinezko ekimenari esker, Joanes, sendagaitzak ziruditen buruko gaixotasunetan trebea zen petrikilo entzutetsu baten eskuetan jar zedila lortu zuen, honen hasierako goganbeharrak gailendu ostean. Joanesek sasimedikuen sendabideen eragingarritasunean uste handiegirik ez zuen inoiz ukan, baina bere gaitzarentzako sendagarri egokiaren bilaketan ikustatu zituen hainbat sendagileetatik, guztiek, bata bestearen atzetik, huts egin zuten, etsituen azken bideari aukera ematea onartu zuen azkenean. Bere jaiotzeko gormututasuna inoiz ez zitzaion bihurtu Joanesi edonorekin solasketa bat eraman ahal izateko gaindiezinezko traba, azpiko gora, nahiz ezpainen irakurketan, nahiz keinu-hizkuntzan, iaotasunez eta ganoraz aritzeko gai zen. Haatik, gaztetandik pairatzen zituen bai zentzumenezko hautemate nahasiak, bai etsialdiak, gero eta maiztasun eta oldarkortasun handiagoaz jasaten zituenez, Alaitzen aholkuari jaramon egitea erabaki zuen halako batean, aurrengo ezkontza-urteurrena bete baino zertxobait lehenago.

Petrikiloa Baztango Bailarako basetxe galdu batean bakarrik bizi zen eta erdi-sorgin ospea zuen emakumezko gizenkote bat zen, nahiko harroputz eta traketsa egia esateko, halere, itxuraz osaezinezkoak ziruditen eritasunen jatorria

antzean eta era egokian bideratzeko dohain berezien jabea zela ezin omen zatekeen uka. Egiari ohore eginez, erdi-sorgin, erdi-osagile handiputz haren eskuetatik igaro eta aste gutxi batzuen buruan, Joanesen biziera-baldintzak nabarmenki hobetzen joan zirela aitortu beharra zegoen. Sasimedikuak Joanesi ezarritako osabidea epealdi zehatz batean jarrai zezan, eguneroko pilula eta kapsulen irenstea alegia, ordain-zerga jasangarria zen, zekartzan ondorio onuragarriekin alderatuz gero. Hutsik egin gabe hartualdien hurrenkerazaintzea zen beraz, Joanesen ardura bakarra, nahasi ezkeroko bigarren mailako eragin kaltegarriak pairatu zitzaizkeen. Ondorio hauek zeintzuk izan zitezkeen zehazki oroitzen ez zen arren, Joanesek gogoan zuen, erdi-sorgin hanpurusak behin eta berriro azpimarratu zioenez, berauek ez litzazkioketela batere samurrak gertatuko. *"Ez ahaztu inoiz: gaurko jarduna, biharko ondasuna!"*, erran zion sasimediku mardulak hitzez hitz, agurtzerakoan. Hori zela eta, Joanesek, sendabidean jarri zenetik, ez zuen behin ere kalerik egin pilulen harraldien hurrenkeran; era horretan, apurka-apurka, etsialdiak arintzen eta nartzen joan zitzaizkion, osoki ostendu ziren arte. Gaztetako irakurketarako zaletasuna berreskuratzea ere erdietsi zuen Joanesek azkenekoz, jadanik jarduera hark ez ziolarik eragiten, antzina bezala, inolako buruko min eramangaitzik. Esan zitekeen hortaz, Joanesek bere bizitzako ekaitzaren ondorengo ezialdia bizi zuela Alaitzi eta, azken batean, petrikiloaren kolore biziko pilulei esker. Gipuzkoako itsasertzeko herri baketsu bezain xarmangarri batean lekutuak, Joanes eta Alaitzek itsaso baretsuarekin aldera zatekeen patxadazko bizimodua zeramaten. Alabaina, jakinekoea da itsasoa bare-bare egon arren, itsas azala etengabeko mugimenduan edo jardueran ibili ohi dela, atsedetik hartu gabe, itsaslabarretako haitzen aurka jaurtikiko dituen olatu oldarkorrek sortuz uneoro...

Itsaso neurrigabearen itxurazko jabaldura gozo hartan otu zitzaion Joanesi, emazteaz ohi baino gehiago arduratzeko garaia heldu zela, bere buruaz pixka bat ahaztuaz. Joanesek bazekien Alaitzek betidanik izan zuela Kontinente Zaharraren bihotzean kokatzen zen Bohemiako lurraldea eta, batez ere, iratxo eta maitagarrien ipuinetatik ateratakoa omen zirudien Praga hiriburua ezagutzeko irrika. Bestalde, Mexikorantz burutu zuten ezkontza-bidaia batik batik Joanesen nahimenari jarraiki eginga izan zenez, gerturatzeaz zeukaten lehenengo ezkontza-urteburua ospatu asmoz, Joanesek emazteari hain atseginekoea gertatzen zitzaion kondairazko Praga hirirantz bidaiatzea proposatu zion. "Ai, zein zoragarria zaren, Jo!", adierazi zion Alaitzek pozarren, besarkada bero bat oparituaz bide batez. Elkarrekin irteten hasi zirenetik deitzen zioen "Jo", Joanes ahoskatzea apur bat luzeegia baitzeritzon. Alaitzen alaitasun eransgarriak, Joanes bidaiaren irteera-egunaren zain egonezinik eta txit urduri uztea ere lortu zuen, bizargabeko gaztetxo baten antzera. Ohizko biziera hartatik ateratzeko proposamen haren ondorio lazgarrien berri izpirik izan balu Joanesek, berehala egingo zukeen atzerantz, garbi izanaz harrezakeen erabakirik zuhurrena beren patxadazko bizimoldearekin jarraitzea zuketela. Haatik, bazirudien itsaso hantuk, bere etengabeko jardute oldarkorren eutsiaz eta enbata apetatsuren laguntzaz, urrunetik olatu indartsu bat jaurtikia zuela jada, amilburu jakin batetik erronkari eta arduragabeki begiratzen zion harkaitz zehatz baten aurka. Beraz, *"Alea jacta est"*, Julio César erromatar enperadoreak esango zukeen legez.

Bidaiari atera aurretikako egunak, Pragako historia eta bertako zenbait pertsonaia ospetsuen biografien irakurketa burutzeko probetxuzkoak gertatu zitzaizkion Joanesi. Berezi, Franz Kafka idazle omentsuaren bizitza goibel eta

ilunaren biografiak erakarri zuen bere arreta. Halako jakiteko gogoak piztu zituen beregan, Kafkaren idazlanik korapilatsuena, *Metamorfosia* literatur lan aparta alegia, irakurtzeko ere gai sentitu zela. Nor demontrek agindu ote zion Joanesi horregatik, bere sudurra argitalpen nahaspilatsu bezain ulergaitz haren orrialdeetan sar zezala? Ekintza horrek ekar zekizkiokeen ondoren malkartsuen susmorik arinena ere ez izateak, soilik, eragozten zuen *Metamorfosia* eta gainontzeko liburuak etxeko kezuloaren bidea har ez zezatela! Goikoz behera, halabeharrak aurrez marrazturiko ibilbide zehatzari jarraiki, bazirudien idazlan guzti haietan bilduriko ezaguera eta edukierak, Joanesengan neurritz kanpoko eragina sortarazteko gaitasuna zutela, loa galarazten zioten hamaika ezbai eta zalantza biztuaraziz bere barrenean...

-II-

Joanes eta Alaitzen arteko lehen ezkontza-urteurrena, hegazkinez Pragara heldu ziren egun berean betetzen zen, hots, 2004ko uztailaren 17an. Pragako egonaldia erromantikoagoa gerta zedin helburuarekin antolatu zuen Joanesek bidaia egunen egokiera harekin. Zekartzaten fardelak erdigunean kokaturiko *Zlata Hvezda*, garai hobeak ezagutu zituen lau izarretako hoteleko 411. gelan utzi ostean, inguruetan ibilaldira bat ematera atera ziren, goizeko giro gozo eta epelaren laguntzaz.

Praga iraganean ainguratutako hiri bat zela berehala egiaztatu ahal izan zuten Joanes eta Alaitzek, horren lekuko baitziren nonahi miretsi zitzaizketen armari dotorez atondutako jauregiak, teilatu-hegats ikusgarriz oparo jantzitako etxe zaharrak eta harri-zolazko karrika meharrak, besteak beste. Horrenbestez, ulerkorra zen Praga "*100 Dorreen Hiria*" bezala ere ezaguna izatea. Joanes eta Alaitzen etorrera baino bi aste lehenago, hirian, Kafkaren jaiotzaren 120. urtemuga ospatu izana behar zuten nonbait, bere ohoreetan hamaika ekitaldi antolatuak izan omen zirelarik: mintzaldiak, musika klasikoazko kontzertuak, bere idazlanetan landuriko gaiei buruzko zinemaldia eta antzezlanak, beste jardunaldi eta emanaldi gehiagoren artean. Joanes eta Alaitzek, hiriko Alde Zaharrean murgildu ziren bezain laster, eskura zituzten ospakizun eta ekitaldi hauen berri eman ziezazkieten hainbat aldizkari, liburu, disko eta oroigarriak oro har, gune hartan barreiatuak zeuden salmenta postu anitzetan.

Azoka postu bakoitzak oroigarri bereziak zituen erakusgai hurbiltzen ziren bisitarien arreta erakartzeko, hala ere, guztietan ikus zaitezkeen, Kafkaren lan esanguratsuenez gain, nahiz bere tankera eta taxukoak izan nahi zuten luzera bikaineko zurezko txotxongiloak, nahiz neurri eta margo orotako kakalardoak, irudimen bizkor baten itzalpetik sortuak nonbait. Kakaraldo gehienak ere egurrezkoak izan arren, bazeuden bai altzairuzkoak, bai beirazkoak, eredu berdin batean oinarrituak guztiak ere, itxuraz behintzat.

Alaitz sor eta lor geratu zen hasiera batean, ez baitzion inolako zentzurik aurkitzen mota hartako mamorro bati nolatan eman ziezaiaketen halako garrantzia Pragako biztanleek. Saltzaileen eskutik zergatiaren azalpena jaso zuenean, alabaina, burutapenaren originaltasuna txalogarria iruditu zitzaion, belarritik belarrirainoko irribarre bat ere marraztu zitzaizolarik bere aurpegi xaloan. Egia esan, Kafkaren *Metamorfosia* liburuaz baliatzea kakalardoaren

irudiak Pragako oroigarri gisa saltzeko bisitariei, ez zen ez batere aburu txarra, batez ere, turista horiek irakurketarako gehiegizko zaletasunik ez bazuten, Alaitz berari gertatzen zitzaion bezala. Gainera, era berean, halako oroigarria erosten zuten bisitariak, Kafka bezalako entzute handiko idazle bat ezagutzen zutenaren antzezlanaren egin ahal izango zuketan ondoren, beren lagunen eta sendikoen aurrean, izan ere, hauek kakalardoaren jatorriaz galdetzen zietenean, ezinbestekoa bihurtuko baitzen orduan *Metamorfosis* lanaz hitz egitea. Eta beronen argudioa bi lerrotan azaltzea oso erraza gertatzen zen, une batez saltzaileei aditzearekin aski zenez gero. Egiazki, azokari haiek, amaigabeko kirieleisonen antzera, hizkuntza anitzetan gauza bera adierazten zuten behin eta berriro, hots, Praga bertako biztanle zen Franz Kafkaren *Metamorfosis* idazlanaren, sekulan idatziriko beldur-alegiarik ospetsuena zela eta bertan, goiz batean bere ohean zetzala, esnatzerako unean, kakalardo itsusi eta kirasdun batean bihurtu zela ohartzen zen gizagaixo baten gorabehera larriak azaltzen zirela. Azalpen hauek eman bitartean, saltzaileek eskuartean beti zerabilten kakaraldoren bat edo beste, beren argibideen lagungarri gisa alde batetik, ibiltarien arreta berenganatu asmoz, bestetik.

Merkatari haien adierazpenen beharrik gabe, Joanesek ongi baino hobeto zekizkien *Metamorfosis* idazlanaren nondik norakoak, goitik beheraino irakurria zuenez berau bidaiaren atera baino lehen. Bazekien adibidez, kakalardo bihurtzen zen gizagaixo haren zorigaitzoko amaiera heriotza zela, baita *Metamorfosis* Kafkaren lan autobiografikoa izan zitekeela ere, era metaforiko batean, noski. Ez zuen aitzitik, inolaz ere, azalpen hauek bere emazteari aditzera emateko asmorik, egiazki, bere sentikortasunean kalterik eragin liezaiokeen ezer ez baitziokkeen inoiz azalduko, nahita bederen, gehiegi maite zuen horretarako!

Alde Zaharretik atera gabe enparantza nagusira heltzean, eguzkia ia bere punturik gorenera iristear zegoen unean, Joanes eta Alaitz Udaletxeko Erloju Astronomiko harrigarriarekin topatu ziren aurrez aurre; eguerdiko kanpandabaden hotsa entzuten hasi orduko, hamabi apostoluen irudien ibilera miragarria ikusteko parada izan zuten, dorrearen goialdeko leihatila batetik irten eta aldameneko bestetik sartzen ziren bitartean. Era berean, beheraxeago azaltzen ziren eta harrokeria, diruzalekeria, gudak eta heriotza irudikatzen zituzten beste lau irudien buruen mugimenduak ere ez ziren gutxiago miresteakoak. Lehenengo hiru irudiek buruak albotara mugitzen zituzten heinean, ezezkoa ematen jardungo bailiran, laugarrenak, hots, heriotza irudikatzen zuenak, bere buruari gora eta behera eragiten zion, baiezkoa eman ez arituko bailitzan, bide batez, eskuartean zeraman ezkila jotzen zuelarik. Inguruan bildu zen jende multzoaren antzera, Alaitz ere aho zabalik, harri eta zur geratu zen ikuskizun jaukal bezain txundigarri haren aitzinean. Joanesek aldiz, buruan jira-biraka zebilkien halako doitasunezko ingeniaritza lan itzelaren egileari, zer-nolako saria eman zioten ordainean bere garaiko zinegotzi basatiek, izan ere, begiak erre eta itsuturik utzi baitzuten, edonon antzeko lanik burutzeko gai izan ez zedin. Txerren halakoak!

"Jo, zein liluragarria eta xarmagarria den hiri hau!", adierazi zion Joanesi bere emazteak, gormutuen keinu-hizkuntzan. "Txokorik ezkutuenak ere begien, bihotzaren eta arimaren atseginerako sortuak izanak dirudite, ez al zaizu hala iruditzen, Jo?", galdeginaz jarraitu zuen Alaitzek. "Jakina, nire kuttuna!", erantzun zion Joanesek. Nahiz eta pentsamendu liriko haieetatik nahiko urrun ibili, Joanesek ez zuen Alaitzen poztasuna inolaz ere zapuzteko asmorik.

Horregatik, ildo berean, "Gogora datozkit Goethe olerkari handiaren hitzak: bai al dakizu, beretzat Praga, lurbira osoko hiri xarmangarrienek osatuko luketen irudimenezko koroaren harribitxirik ikusgarriena litzatekeela?", azaldu zion Joanesek. "Bat nator berarekin!", ihardetsi zion Alaitzek, danbolinik gabe dantzatuaz. "Ez duzu bada jakingo, zein iritzi ote zuen hiri honetaz, dagoeneko gure lagun mina bihurtu den Franz Kafka betilunak?", itauntzea otu zitzaion hitzetik hortzera Alaitzi. Joanes une batez zirkinik egin gabe geratu zen, jarraian "Noski, maitea: hemeretzi urte besterik ez zituelarik, Kafkak jadanik garbi adierazi zuen Praga ama kuttun bat bezalakoa zela beretzat!", azalpena eskaini zion Alaitzi. "Zein hitz politak! Oso jantzia ikusten zaitut olerkigintzan, Jo! Txundituta utzi nauzu, benetan!", arras hunkiturik, Alaitzek laztan sutsu bat oparitu zion Joanesi, eta estu-estu eginik, maitemindu berri zen bikote baten antzera, *Moldava* ibai arranditsua zeharkatzen zuen *Karlov* zubi zaharkiturantz zuzendu zituzten beren urratsak...

Bi albotara giza irudi erlijiosoz josiriko *Karlov* zubian zehar zihoazen bitartean, orduan, eta ez lehenago, entzun zuen Joanesek egun hartan, bere barrenetik —nondik bestela?— zetorkion eta izotza bezain hotza zirudien ahots hura: "*Ez duk egia osoa esan! Ez duk egia osoa esan, koldar horrek!*". Tamalez, ahots zakar lain anker haren hitzen oihartzuna ez zen zeharo ezezaguna Joanesentzat, nahiz eta hainbeste denboraren ostean, "*Izt*" itzuliko zenik ez itxaron inondik inora ere. Joanesek, bere garaian, "*Izt*" izena jarri zion ahots lakar haren jabeari, sortarazten zion izu-ikara uxatzeko asmoz; ahotsak bere barnean zuenez jatorria, Joanesek bere kontzientziarena izan zitekeela pentsatu ere egin zuen hasiera batean, baina laster susmatu zuen bere gorputzean habia aurkitu zuen izpiritu maltzurren bati zegokiola, izua sortarazi zezaken uneetan bakarrik agertzen zenez. "*Izt*" izenak, "*Izpiritu Zakar eta Tematia*" esan nahi zuen, hitz hauen lehen hizkiak erabiliaz bururatu zitzaion Joanesi izaki hura bataiatzea. Denborarekin, izumen maila urritzen joan zitzaion neurrian, deabrukumea "*Iratxo Zatar eta Tentela*" moduan hartzen zuen aintzat, nahiz eta berarekin ziharduenean kontu handiz "*Izt*" deituaz jarraitu, zer gerta ere...

Pilulak hartzeari ekin zionetik, Joanesek ez zuen izan "*Izt*" izpiritu edo inguma haren berririk, "Zergatik azaldu ote duk orain otoz otoan? Zergatik hemen, Pragan?", erantzunik gabeko galdera haiek biziki aztoratzen zuten Joanes, izakiak jaurtiki zituen hitzen esanahia bera baino gehiago. Izan ere, Joanesek ondo zekien zeri buruzkoa zen "*Izt*" iratxoaren mintzoa: Kafkak, bere garaian, "*Praga, ama kuttun bat bezalakoa da...*", hitzak jaulki zituela egia zen, ez ziokkeen bestela Alaitzi halakorik azalduko, nolana ere, Kafkak ez zuen bere esaldia hor bukatzen, ezta gutxiago ere, bere jarraipena baitzuen: "*...baina atzapar zorrotzak dituen ama kuttun bat bezalakoa!*". Era hartan amaitzen zen egiaz esaldia, beronen hasierako zentzua zeharo ipurdiz gora utziaz. Hala zen: Kafkak bere jaioterria barren-barrenetik gorrotatzen zuen, hiriarekiko zituen ikusiezin eta amorruzko sentipen horiek bere idazlan guztietan islatzen ziren, agerikoak ziren beraz, lerro artean irakurtzen jakinez gero, noski, Joanesek egin zuen moduan. Idatzien azpiko mezu ezkutuen esangura ikertuaz ondorioztatu ahal izan zuen Joanesek, Kafkak bere egunean egin zuen aurkikuntza itzela, hots, hiri hura gaiztakeriaren eta grina ankerrenen habia zela, Deabrua berberaren gotorlekua! Hantxe zetzan, eta ez beste inon, Kafkaren sumindura eta aiherkunde sentipen guzti haien iturburua, haatik, nolaz azaldu ziezakioken bere Alaitz sentibera eta panpoxari itsaso biziaren olatu bortitzenen parekoak ziren gogoeta oldarkor haiek? Ezinezkoa: hagitz

eramangaitza eta jasanezinezkoa gertatuko bailitzaioke! Atoan hotzikara mingarri batek zeharkatu zuen Joanesen gorputza burutik oinetaraino, petrikiloak aholkaturiko pastillak irensteko behin ere ez bezalako behar larria barruntatu zuelarik; zorionez, ari zen gerturatzen bazkalordua eta ondorioz aurki izango zen gainean zeraman pastillen kutxatilatik bi pilula gorri... zera, koloreetako bi kapsula hartzeko tenorean. "Erabat artega jar nadila lortu dik *Izt* inguma nardagarri horrek, pilulen hartualdien hurrenkeran ere ia-ia nahastarazi zidak!", pentsatu zuen berekiko Joanesek. "Non arranopola sartu ote duk orain izpiritu gogaikarri hori? Agian betirako aldenduko zuan, batere jaramonik egin ez diodanez!", jarraitu zuen Joanesek bere buruarekin berbetan, baina bere itxaropen izpiak bertan behera erori ziren, tupustean "*Badakik ezetz! Badakik ezetz!*", iratxoaren ahots garratza bigarren aldiz irozo baitzuen, oraingo honetan isekazko doinu batez lagundurik...

Oinezkoek bakarrik igaro ahal zezaketen *Karlov* zubian zehar zaratotsa zen nagusi, mota orotako kale ikuskizunekin aurkitzen zen handik igarotzen saiatzen zen edozein ibilzale: norbaitek txanponen bat bota artean, harrizkoak ziruditen ongi mozarrotutako antzezleak; hamaika musikari ibiltari, ondo hezitako txakurkumeeekin komeriak eginez batzuk, seriotasun gehiagorekin, Mozart eta Chopin musikagileen opera lanak abestuz, beste batzuk; txerpolaria eta itzulipurdikaria akrobazi trebeak eginez, ia ezinezkoak; maisutasun handiz, txotxongiloak ibiltzen ez ezik, dantzan ere jartzeko gai ziren artistak, bizidunak bailiran; eta nola ez, arestian Joanes eta Alaitzek hainbat salmenta postutan ikusi zituzten ditxosozko kakalardoak ere nonahi. Zenbait postutan gainera, besteak beste, kakarraldoaren irudia larru azalean tatuatzeko aukera ere bazegoen, auskalo nolako garbitasun baldintzetan! Han zebilen Alaitz, ikuskizun batetik bestera saltoka, lorez lore lore-hautsaren bila ziharduen erlearen gisara, pozez zorutzen. "Jo, erosiko al dugu txotxongiloren bat?", galdegin zion senarrari, Joanes erabat loturik zeukaten pentsakizun haietatik askaraziz. "Noski, kakalardoren bat erostea baino askoz egokiagoa deritzot!", erantzun zion Joanesek, irudimenezko espetxe hartatik ihestea lortuaz behingoz. "Baina joan gaitezen lehendabizi bazkaltzera eta burutu ditzagun erosketak itzuleran, bestela zamaturik ibili beharko genuke eta!", proposatuaz amaitu zuen Joanesek. Une egokia zen hura, eguzki gupidagabea hasia baitzen jada bere izpi kiskalgarriak txoko orotara jaurtikitzen, geziak bailiran.

Zubian zehar zihoazelarik horregatik, lagun talde handi bat ikustatu ahal izan zuten Joanes eta Alaitzek, irudi erlijioso haietako baten aitzinean ilaran jarriarik. Alaitzek galde ziezaion baino lehen, Joanesek, irudia Nepomuzeneko Juan Martiriarena zela azaldu zion: "Aitortzaren zaindaria da, eta kondairak dioenez, irudiaren oinpean eskuin aldean igurtziz gero gurari bat eskatuaz aldi berean, Pragara itzulera ziurtatzeaz gain, guraria ere betea izango omen da!". Joanesen azalpena iraungita geratu zedin baino lehen, han zen Alaitz lerroaren azken tokian bere txandaren zain. Besterik ezean, Joanes zubiaren karelerantz zuzendu zen, eta bertan bere ukondoak ahal zituen erosoan tinkatu ondoren, *Moldava* ibaia zeharkatzen zuten ontziei so eginez geratu zen, bere emaztearen zain. Edonola ere, Alaitz baino lehenago, beste norbait zuen Joanesek ate joka: "*Zergatik ez diok azaldu martiria nolaz bihurtu ziaten?*", galdezka egin zuen bere agerpena, ohiko ahots mingots harekin, "*Izt*" iratxoak. Joanesek *Moldava* ibaia behatuz jarraitu zuen, pentsakor, ontzietatik eskuak astinduaz agur egiten zioten bisitariei agurra itzultzeaz ahaztuta; bazekien Nepomuzeneko Juan apaiza gupida gabe oinazetua izan ondoren, une hartan begiratzen ari zen ibai eskergara jaurtikia izan zela, noren eta lur haietako

errege berberaren aginduaz! Argi zegoen, Praga izaki ohilen habia, Jainkoaren eraginpetik at geratu zen lurraldea zela, sorgin, azti eta deabruen gordelekua! Ziurrenez mila adibide idoro ahal izango zitezkeen Kafkaren aurkikuntza hau egiazta zezaketenak denbora eta lerro artean irakurtzeko gaitasuna izan ezker, susmo hori zeukan bederen Joanesez. Egiazki, Kafkaren lanaren zati urri bat besterik ez ezagutu arren, hiri hartako gaizkiaren eragina zer-nolakoa zen irudikatzen nahikoa eta gehiegi gertatzen baitzitaion Joanesez. Itsasoa harro eta bizi dabilela jakiteko olatu bortitz bakoitza zenbatu beharrik ez dagoen bezala...

“Zein gurari egin duzu bada, nire kuttuna?” galdegin zion Joanesez Alaitzi, bere alboan hauteman zuen orduko. “Ez dakit esan beharko nizukeen, gurariak ezkutukoak izan ohi dira eta! Baina tira: gure elkarrekiko maitasuna inoiz ez dadila amaitu!”, azaldu zion Alaitzek, Joanes erabat hunkiturik utziaz. Maitegarrezko besarkada luze baten ondoren, Joanes eta Alaitz zubiaren bestaldean kokatzen zen *Mala Strana* zeritzon Pragako gunere berezian sartu ziren, ostatu hartu zuten hoteleko harreragilearen aholkuei jarraiki, *Maliru* izeneko jatetxearen bila.

Aitortu beharra zegoen egiaz lilura bereziko jatetxea zela *Maliru*: kolore biziko lore ikusgarriak nahiz barneko bi lorategi botanikoetan, nahiz mahai borobil bakoitzaren gainean, erdian kokaturiko loreontzi apainetan; gaztelu eta jauretze dotoreen margolanak, hormetan eskegitako koadro bikainetan; Erdi Aroko egikerazko egurrezko altzariak eta Bohemiako beira hauskor eta bereziaz bildutako argi distiratsuak, sabaitik zintzilikaturik. Bozgorailuetatik piano melodia goxoak entzun zitezkeen. Hoteleko abegigileak ez zuen batere gehiegi edo puztu jatetxean arnastu zatekeen giro eroso eta atseginaz jardun zirenean. Jantokiko leiho zabaletatik igaro berria zuten *Karlov* zubia ikus zezaketen Joanesez eta Alaitzek. Sabelari poza eman aurretik, Joanes, zerbitzura joan zen abaguneaz baliatu zen zegozkion bi kapsulak irensteko, ez baitzen batere eroso sentitzen pastillak emaztearen aurrean hartu behar izaten zituenean. Azkar baino lehen damutuko zen Joanes haur jokaera hartaz!

Hasierakoan ostean, Joanesez eta Alaitzek jatetxeko plater berezia zen txala eta txerriaren haragia nahasturik eskatu zuten, inguruan bertan ekoizturiko ardo beltzaz lagundurik, ezusteko pozgarria hartu zutelarik bai bata, bai bestea, dastatu ordurako. Bazkalburu bezala, Joanesez txokolate beroaz bustitako krepere gozoz eta Alaitzek madari-tartaz ahogozatzeko aukera ez zuten alferrik galdu. Ondorengo kontua ahuntzaren gauerdiko ezturen parekoa ere ez zen izan noski, edozelan ere, bizitako giro erromantiko eta laketgarriak Joanesez poltsikoak jasandako astinaldia dexente leuntzen zuen.

Bazkalostean, eguneko ordurik beroenak saihestu ondoren, Joanes eta Alaitz abian jarri ziren berriro “*100 Dorreen Hiria*” ezagutzen jarraitzeko asmoz. *Mala Strana* gunean ere, urrutiko garaietan hiriak izan zuen distiraren lekuko ziren loretoei apainaz hornitutako hainbat eraikin eta jauretze mirets zitezkeen, bazirudien gehienak muino baten gainean aurkitzen zen gaztelu eskergaren itzalpean sortuak izan zirela. Beren goranzko ibileran kolore biziko etxe ttipiz osaturiko kale estu baten barnean sartu ziren oharkabean. Joanesez berehala jakin zuen *Urrezko Kalezuloa* zeritzon karrikan aurkitzen zirela, hamaika artista eta intelektuala bizilekua bere garaian —Franz Kafka bera ere barne, nola ez!—. Bazkal aurretik eroan zuen antzeko hotzikara berri batek astindu zuen Joanesez soina, kale bitxi hartako 22. zenbakia zeraman bizilekuaren aurretik igarotzean: izan ere, hantxe bizi izan baitzen Franz Kafka, hantxe bere idazlanak

hausnartu, auskalo zenbat istorio eta oroitzapen beldurgarriren zaintzaile izango ote ziren egoitza hartako horma zaharkituak!

"Begira Jo, horko dorre garai hori: badirudi ortziko lainoak igurtzi nahian hazten eta hazten joan dela!", esan zion Alaitzek, olatu oldarkorren mende geraturiko lemarik gabeko ontziaren gisa, berritan gogoeta kezkarrietan harrapaturik zebilen bere senarrari. *Urrezko Kalezuloaren* alboan ikus zatekeen *Daliborka* izeneko dorre luzeaz mintzo zen Alaitz. "Jatorriz, dorrearen izena, Dalibor izeneko zaldun bati dagokio, hots, dorre horretako lehen espetxeratua izan zenari. Erdi Aroko nobleen eta jende xehearen arteko liskarretan, azken hauen alde azaltzegtatik atxilotu eta dorre hartara eramán zuten Dalibor zalduna. Dorrean zegoen bitartean, zaldunak biolin bat eskatu ostean, orduak eta orduak eramaten omen zituen abesten eta melodi goxoak joaz eman zioten musika-tresnarekin, dorre inguruan bizi ziren biztanleen entzumenaren gozamenerako!", azaldu zion Joanesek. "Zein erromantikoa! Eta zer gertatu ote zitzaion ondoren?", galdegin zion Alaitzek Joanesi, istorioaren kontakizuna amaitzean. "Batek daki, kondairak ez baitu xehetasun gehiagorik ematen!", ihardetsi zion Joanesek. Hala zen: kondaira hor amaitzen zen, baina bestalde, irakurri zuenaren arabera, ongi baino hobeto zekien Joanesek, errealtatean, benetan gertatukoarekin ia zerikusirik ere ez zuela kontakizun hark, zinez, Dalibor zalduna oinazetua izan baitzen heriotza arte, bere abestiak minak eragindako oihuak eta garrasiak izanez egiazki. Kondaira haren iturburua, ziur aski itzulpengintzako akats batean zetzan: "oinazea" hitza txekieraz "biolin" bezala ahoskatzen zenez. "*Ez diok egia esan! Ez diok egia esan, koldar horrek!*", iratxoari zegozkion hitz ezatseginak entzun behar izan zituen beste behin Joanesek, jada hotelerako itzulerako bidea hartzen zuten heinean. Burua astun eta gorputza nagi, pilulekiko beharaldi gorria barrundatzen zuen Joanesek, lehen baino grina handiagoz ahalezkoa balitz, baina tamalez oraindik asko geratzen zen afalordura arte... Uhin bortitzago baten iragarle ziren lehen olatu oldarkorrenak iristen hasiak ziren itsasertzera jada!

Pragako oroigarri gisa, txotxongilo bat erostearen kontua ez zitzaion Alaitzi ahaztu, ezta gutxiago ere; horrenbestez, berriro aurkako norantzan *Karlov* zubitik igarotzean, bazkalaurretik bere arreta erakarri zuen sorgin taxuko txotxongiloaren bilatzeari ekin zion. Sorgin eiteko txotxongilo anitz ikus zaitezkeen arren, berari atseginekoa gertatu zitzaiona, Nepomuzeneko Juan Martiriaren iruditik hurbil zegoen postu batekoa zen: soinean jantzi dotoreak zeramatzan, guztiak ere ilun xamarak, margo biziko mantala izan ezik, jite latz eta gogorreko aurpegia, okotza sudurra haina luze, hortz batez hornitutako aho zabal eta okerra, adats luze eta zuria, bere jantzi ilun eta kapela beltzarekin alde handia islatuaz, eta lastozko erratza eskuartean, azken batean, sorgin batengandik itxaron zitekeen guztia biltzen zuen txotxongilo hark!

Martiriaren irudiaren parera iritsi baino lehen, han non ikusi zuen Alaitzek bere txotxongiloa, lehengo toki berean. Hurreratu orduko, saltzaileak bere arreta erakartzearen, ia ikusezinak ziren hari batzuen bidez txotxongiloa izaki bizidun batean bihurtu zuen: orain zangoak oinez baillihoan mugituaz, orain bere eskuekin erratza astinduaz, jarraian bere hortz bakarreko ahoa ireki eta itxiaz, eta ondoren bere begi beldurgarriak jirabiratzuz zebilzkielarik, etengabeko dantza moduko batean, nor esango zukeen sorgin hura panpina arrunt bat besterik ez zenik? Zer esanik ez, halako erakustaldiaren ondoren, Alaitzi txotxongiloarekiko nahiera biziki areagotu zitzaion eta ez bat, ez bi, Joanesen

bihotzeko oniritzia inoiz jasoko ez lukeen andrakila haren jabe berrian bihurtu zen, hots, ustezko jabe berrian, hobeto esanda...

Ostatuz zeuden hotelean afaldu ondoren, Joanes eta Alaitz goiz xamar oheratu ziren, egun guztian zehar harat-honat ibiltzeak eragindako nekearen ondorioz. Bestalde, Joanesek burua nahiko pisutsu sentituaz jarraitzen zuen, otorduaren aurretik irentsiriko bi kapsulek ezer gutxi arindu ahal izan ziotelarik jasanezinezko buruko min hura; horrenbestez, atsedena lehenbailehen hartzeko irrikatan zen, eguneko azken kapsula gelako zerbitzuan irentsi eta gero, jakina.

-III-

Egun guztian zehar egin zuen bero sargoriak zerraienez, logelako leihoa zabalik uztea erabaki zuen Joanesek. Gelak bazuen aire egokituriko instalakuntza, baina sistema hau ez zen Alaitzen oso atseginekoa, hotz gehiegi sorrarazi eta gaixotasunak harrapatzeko arriskugarritzat jotzen zuenez. Gau hartako ilargia beteak doitasun handiko konpas batekin marraztua zirudien; ortziko izar ugariak aldiz, keinuka zebiltzan. Ondorioz, distira eta argitasun guzti hura saihestearren, egokiena logelako pertsiana erdi aldera arte jaitea izango zela ebatzi zuen Joanesek.

Sorgin tankerako txotxongiloa logelako ohearen aitzineko jesarlekuan geratu zen, han utzi baitzuen Joanesek, berau zehatz-mehatz aztertzen ibili ostean, Alaitz zerbitzuan zen bitartean. Hasiera-hasieratik ez zitzaion batere begikoa gertatu txotxongiloa Joanesi, beronen atzean zerbait gaiztoa, deabruaren eskua antzematen zuen, Kafkaren mezu ezkutuak zekarzcion oroimenera, baina Alaitzen aurrean halakorik azaltzeak lotsa ematen zion. Haatik, Alaitzi bere kezken berri emateko gauza ez zen izan, hau zerbitzutik atera eta bere alboan ohean sartu zenean. Ezta jarraian ere, Alaitzek *"100 Dorreen Hiria"* edo Pragak sortu zizkion sentipen liluratzaille eta kilikagarriez mintzatzen jardun zenean ere, gaua ondo pasatzeko opa eta argia itzali aurretik.

Morfeok berehala hartu zuen Alaitz bere besoetan, Joanes aldiz ezin izango zukeen halako bizkortasunez harrapatu saiatu izan balitz ere, koipeztatuko txerrikume batek bezala egingo baitzion ihes behin eta berriz. Erabat artega, Joanesek etengabe begiratzen zuen txotxongiloa zetzan jarlekura, beronen mugimenduren bat noiz nabarituko zain. Leiho erditik sartzen zen ilargi betearen argitasuna aski zen, txotxongiloaren ingerada igarri ahal izateko. Bere begiak iluntasunean ikustera ohitu ere egin ziren bestalde, zelatan luzaroan baitziharduen. Hala eta guztiz ere, itxaron zatekeenaren aurka, txotxongiloari inolako higikerarik ez zitzaion nabarmentzen. *"Karlov zubiko antzezleek ere ez ziaten zirkinik egiten!"*, ingumaren ahots zakarra entzun zuen Joanesek halako batean lokartzear zenean, bere zentzumen ororen berpiztea eraginez. Amaigabeko bi ordu geroago aitzitik, txotxongiloa harri kozkor bat bezain geldi zegoenez, Joanes ere loak hartu zuen oharkabean; Morfeo garaila atera zen azkenik!

Ametsen Jainkoaren mendeku egarriaren ondorioz edo —hainbeste lan sorrarazteagatik—, Joanesek atsedetik hartu ezinik zerraien, lo geratu orduko

amesgaizto baten barnean buru-belarri sartu baitzen: izaki bizidun baten antzera, sorgin itxurako txotxongiloa bere eserlekutik jaikitzen eta berarengana zuzenduaz zekusan, astiro-astiro, urrats baldarrak emanez, eskuartean zeraman erratza astinduaz eta hortz bakarreko aho okerra behin eta berriro zabalduaz eta itxiaz, ziurrenez aztikeriaren bat burutu asmoz, inondik inora. Ematen zuen urrats bakoitzeko bere irudi mehatxagarria handiagotzen zihoan, ia gizaki baten garaiera harrapatzeko ezer gutxi geratzen zitzaizolarik. Arnasestuka eta izerdi patsetan, ustezko amets hartatik ihesbide bat topatzeko Joanesen ahalegin sutuak ez ziren alferrikakoak gertatu azken buruan eta begiak garaz zabalitzea lortu zuen, sorgin-txotxongiloa bere gainera jauzi zedin baino lehen. Begirada bizkor batez txotxongiloak esertokian jarraitzen zuela egiaztatzean ostera, berak utzitako eran gainera, Joanesen bihotzaren taupaden abiadura pixkanaka jaisten hasi zen, "Zein tentela nauan! Amesgaizto bat besterik ez zuan eta!", bere buruari haserre zioen bitartean. Bira eman eta maindrepean ezkutatu zen Joanes; pilpirek ohiko abiadura berreskuratu baino lehen alabaina, sorgin eiteko txotxongiloaren higikera hauteman zuen berriz ere berarengana zuzenduaz, eserlekutik zutitu ostean. Arestian bezala, zurezko panpina soila baino izaki bizidun baten antz gehiago zuen. Oraingoan ordea, Joanesek sorgin-txotxongiloari jaramonik ez egiteko erabaki tinkoa hartua zuen, jokabide haren bidez amesgaiztoa uxatzea erdietsiko zuelakoan. Gauzak horrela, sorgin-txotxongiloa bere gainean sumatu arren, begiak hertsirik eta gertatzen zenarekiko aiherga mantentzea lortu zuen, azkenik txotxongiloak atzerantz egin behar izan zuelarik.

Halere, sorgin-txotxongiloa ez zen jesarlekura itzuli, oinez gora, oheari bira eman ostean, Alaitzengana zuzendu zen. Une hartan larritu zen zinez Joanes, hatsanka eta ito beharrean, bere indar guztiekin begiak irekitzen saiatu zen. Ezinezkoa. Sorgin-txotxongiloa bien bitartean Alaitzen albora iritsia zen, bere atzamar zorrotzak era mehatxagarrian mugitzeari ekin zizolarik. Joanesek iratzartzeko ahaleginak areagotu zituen, bere helburua erdietsiaz azkenik, oso nekez bazen ere. Tximistaren azkartasunez, gau-mahaiko argiaren pizgailuari eman zion. Sinestezina: txotxongiloa jarlekuan zen, argazki bateko irudia bezain geldil! Bere buruarekin hagitz ernegaturik, Joanesek argia itzali zuen, lotan jarraitzeko asmoz. Bere buruari amesgaizto berberean bigarren aldiz nolaz erori ote zen galdegiten zion bitartean, "*Emazteak utzi egin hau!*", nahasi ezinezko ingumaren ahots nardagarria entzun behar izan zuen. Hitz haiek beregan urduritasuna, kezka eta ikararen haziak ereitea zuela helburutzat ongi baino hobeto zekien Joanesek...

Haatik, alde batera orain, bestaldera ondoren, Joanesek ezin zuen jarrera egokirik bilatu. Bere emaztearena bai lo sakona, ez zion inolako mugimendurik igartzen. Saiatu arren, iratxo maltzuraren hitzez oroitzea ezin izan zuen ekidin eta egonezinak eraginda, argiaren pizgailuari eman zion azkenik. Argia egitearekin bat, aurrekoak txiki uzten zituen beste hotzikara batek zeharkatu zuen Joanesen gorputza, lepo-hezurrean orratz luze eta zorrotz batez gupidarik gabe zast egin izan baliole lez. Zur eta lur eginda, bihotza eskuetan zuelarik geratu zen bere emaztea alboan ez zetzala egiaztatzean! Bere burua baretu eta sosegatu nahian, "Zergatik jarri ote nauk hain urduri? Zerbitzura joana izango duk eta!", zioen Joanesek. "*Badakik ezetz: hire emazteak utzi egin hau!*", jarraitzen zuen temati inguma ankerrak. Zalantzaren haziaren ernetzea gera ezinezkoa zen jada: emaztea zerbitzuan zen ala ez jakin beharra zuen nahitaez Joanesek. "*Badakik ezetz!*". Nolako buruhaustea: zerbitzuko atea zabalteza joango balitz, emazteak haur baten jokaera zeukala aurpegiaratu liokeela

garbi zeukan Joanesek, baina bestaldetik, iratxoaren *"Emazteak utzi egin hau!"* hitz bitxi bezain lazgarri haiek, gero eta ozenkiago oihartzun eginez zebilzkion buruan. Pilula gorriak nahiz kapsula koloredunak bai ondo etorriko litzaizkiokeela egoera hartan!

Itsasgorako olatuen menpean zen Joanes, eta nahiz eta hasieran Alaitz zerbitzutik atera zedin itxarongo zuenaren erabaki irmoa hartu, bere buruari emaniko hitza janez, jauzi batez ohetik jaiki eta gelaren bestaldean geratzen zitzaion zerbitzura zuzendu zen; atea jo eta ia itxaron ere egin gabe, berau zabaldu zuen. Lehengo toki berberean, hots, lepo-hezurrean, aurrekoari batere bekaizkeriarik ez zion zitzada berri bat pairatu zuen Joanesek zerbitzuko argia itzalita zegoela baieztatzean. *"Esan diat!"*, ingumaren iseka entzun behar gainera. Erabat etsiturik argiaren pizgailuari eman zion, aitzineko ispiluak beldurrez dardarka zen bere irudia soilik itzuli ziolarik; han ez zegoen Alaitzen aztarrenik! Mainontzian ere behatzea alferrikakoa gertatu zen! Logelara itzuli eta Alaitzen jantziak armairuan eta mugikorra poltsan zeudela baietsi ostean, ohe gainean eseri zen zeharo lur-jota. Bihotza erdiraturik "Non egon liteke nire Alaitz?", zioen bere buruari. *"Esan diat!"*. Beldurra kea bezalakoa zela irakurria zuen nonbaiten Joanesek, askotan ke-lainoaren neurriak itzelezkoak ziruditela alegia, baina batzuetan sua zegoen tokiraino heldu ezkerro, ur-baso batekin iraungi zatekeela egiaztatzen zela. Batzuetan. Beste batzuetan aldiz, zoritxarrez, beldurra kea bezala hedatzen da, harrapatzen duen oro kutsatuaz...

Izuduraren atzaparretan jauzi zen Joanes, guzti hark ez zuen zentzurik, bere begirada logelako hormetan eskegirik zeuden *Art Nouveau* estilo edo tankerako margolan abstraktuetan galdu zen. Margo batetik bestera iragatean, ia ahazturik zeukan txotxongiloa ikustatu zuen, bere jartokian, hasierako ezarrera berdinean. Bet-betan erabat zurbildurik geratu zen izan zuen burutazioaren ondorioz, eta Jaungoikoari nahasturik egon zedila eskatuaz, ohe gaineko maindire atxiki eta bere alderantz tenkatu zuen behingoan, ekintza hori burutzean konortea galtzeko zorian gertatu zelarik, pairatu zuen bihotzikara itzelaren ondorioz: izarapean, bere emaztea ordura arte lotan zetzan aldean, tirri-tarra mamorro bat zebilen noraezean! Zomorroa zehazki kakalardo bat zen, sekulako zarrastada eragin zion Joanesi bihotzondoan, lastaira estaltzen zuen maindire zuriaren gainean ikatza bezain beltza zen marmalo bat higitzen ikusteak! Lazturak argitasunez pentsatzea galarazten zion: "Alaitzen txantxa bat soilik ote duk agian?", zioen bere buruarekiko, guzti hari azalpen bat ediren nahian. *"Badakik ezetz!"*. Bai, bazekien: Alaitz inoiz ez zen adarjotzailea izan eta bestalde olgeta hark ez zuen ez gatzik, ez piperrik. Beraz, geratzen zen azalpen bakarra, hasiera-hasieratik barrundatu arren onartu nahi ez zuena, sorgin-txotxongiloak aztikeriaren baten bidez bere emaztea begien aurrean zekusan zomorro hartan bilakarazi zuenarena zen! Zentzutasunaren mugetatik at, Joanes sorgin-txotxongiloa zegoen tokirantz biratu zen. Beranduegi: kordea galaraziko zion zartatekoaren jatorria sorgin-txotxongiloaren erratza zela ozta-ozta ikusteko astia izan zuen! Ondoren ezereza. Itsaso hantuaeren olatu indartsuek, behin eta berriro toki berean jo eta higadura lana burutu ostean, haitzik sendoena ere mila zatitan apurtzeko gai izan ohi dira...

Joanesek, bere onera itzuli zenean, bere emaztea bezala mamorro higuigarri batean bihurtuta egiten zuela erabat ziur zen, gauari eguna datorkiola adina. Sorginak erratzarekin buruan eman zion zartatekoak min galanta eragiten zion oraindik, zartada orduantxe bertan jasan izan balu

bezala. Zein etorkizun beltz eta negargarria emaztea eta biena: salmenta toki batean disekaturiko kakarraldoko gisa amaitzea ere! Zer beste aukera itxaron zezaketen bestela, deabruaren zerbitzari harengandik? Nolanahi ere, Joanes oso bestelako joko-eremu batekin aurkitu zen zorionez: maindirepean zetzan ohean, logelako argia piztuta, eta bere emaztea betiko itxura xaloarekin arras arduraturik berari so eginez... "Jo, ongi al zaude? Ametsetan ibiliko zinen, ederra kolpea eman diozu buruarekin gau-mahaiari, zaratarekin esnatu nauzu!", azaldu zion. Joanesek txotxongiloarengana zuzendu zuen bere begirada ziztu bizian eta bart berak utzitako toki eta jarrera berean zela egiaztatu ahal izan zuen, zerbait lotsaturik. Beraz, guztia amesgaizto bat izan ote zen, bada? Hala zirudien, egia esan. "Aizu, Jo, gau guztia daramazu ohean alde batera eta bestera jirabiraturuz... Bart pilulak hurrenez hurren hartu al zenituen?", galdegiten ari zitzaion Alaitz, Joanesen harridura aurpegiaz ohartuta. "Badakizu petrikiloak argi eta garbi utzi zigula nahitaezkoa zela hartualdien hurrenkera zaintzea haluzinazio larriak ekiditeko... Nahastu egin zara, ezta?", jarraitu zuen Alaitzek, muzin eginez Joanesen begitarte errudunaren aitzinean. "Hara Jo, saia zaitez arreta gehiagorekin ibiltzen, mesedez maitea! Aiii, gizonak, beno, egin dezagun lo pixka bat orain!", amaitu zuen Alaitzek, argia itzaliz, Joanesi musu bat eman ostean. Joanes pentsakor geratu zen, bere emazteak egia zioen: bazkalorduan pilula gorriak hartu beharrean koloretako kapsulak irentsi zituen, nahasketarekin jarraituaz afalorduan eta oheratzerakoan ere! Nahasketaren errudun bakarra "Izt" inguma izan zen, berak nahastarazi zion, baina nolaz azaldu ziezaiokeen halakorik bere emazte pinpirinari? Ezinezkoa! Gauzak horrela, geldi-geldirik egoten saiatu zen Joanes —Budaren irudi bat bezainbat!—, emaztea beragatik ardura ez zedin, bere mesfidantzazko begirada txotxongiloarengan ezarria zuelarik, emeki-emeki betazalen pisua eutsi ezinezkoa bihurtu zen arte....

-IV-

Joanesek bat-batean begiak zabaldu zituenean, tamalez, bere susmorik okerrenak gauzatu zirela egiaztatzeko izan zen: sorgin eiteko txotxongiloaren bekokia bere aurrean, gain-gainean zekusan, irribarre maltzur bat marrazturik zuelarik. Zoramenaren atarian, ikararen mugak gainditzeaz, Joanesek kolpetik ondorioztatu zuen sorgintzar hark azkenean bere helburua lortu zuela eta zomorro higuigarri eta hatsituetan bihurtu ostean emaztea eta biak, aztikeria arrakastaz burutu izana ospatzen zebilela. Nahiko gardenki nabari zezakeen Joanesek sorgin hura haragi-hezurrezkoa zela, ez zebilela beraz aurreko aldietan bezala, beste ameskeria batean galdurik eta noraezean. Izan ere, lehengo ametsetan ez bezala, oraingoan sorginak eskuartean zeraman zerbaiti zerion kino berezia usaindu baitzezakeen. Deabruaren mirabe haren atzaparretan nolatan utzi ote zen erortzen galdegiten zion Joanesek bere buruari. Ea zergatik ez ote zituen beharrezko babes-neurri eraginkorrik hartu, Kafkak halako argitasunarekin erakutsi ostean zer gerta zekiokkeen; lepoan zeraman kateak, Arantzazuko Ama Birjinaren irudiarekin zintzilikario gisa, infernuko izaki batengandik babesteko ballagarria gerta zekiokkeela ea nolaz burutu ote zitzaion... Zein arduragabea izan zen, ez zuen barkamenik, bere burua ez ezik, emaztearena ere ez baitzuen zaintzen jakin izan! Alaitz gajoa!

“Sorgin zital hori!”, gorrotoz beteriko garrasi mingar bat entzun ahal izan zuen Joanesek, edo hori iruditu zitzaion bederen, ahal izanez gero, zinez, berak oihukatu lituzkeen hitzak baitziren haiek. Zoritxarrez ezin zitezkeen bere mamorro muturretik jaurtikiak izan, beraz “Izt” iratxoarenak izan behar zutela argi zegoen Joanesentzat. “Humm, egia duk batzuk sorgintzat naukatela, baina jendearen txutxu-mutxuei ez huke jaramon gehiegirik egin behar, nire ustez, jiji!”, entzun ahal izan zuen bere zomorro buru ahula lehertzeaz zeukan Joanes gizajoak. Hitz haiek “Izt” ingumarenak ezin zitezkeela izan ondorioztatu behar izan zuen orduan Joanesek, ez baitzuten inolako zentzurik mamutzar haren ahotan. Berba haiek txotxongiloarenak ziruditen, baina orduan nolatan entzun zitzaizkeen Joanes berak, gormutua izanik? Hasiera batean uste zuenaren aurka, amesgaizto berri baten barnean ote zebilen? Beste irtenbiderik ez zegoen, marmalo bihurtzean entzumen berreskuratu zuenaren aldartea ezean, baina azken aukera hau berotasunik gabeko sua bezain gertagaitza zen!

Begietako lausoa kendu ahala, ohartu zen Joanes bere aitzinean hitz egiten ziharduen emakume lodikote hura ez zela sorgin itxurako txotxongiloa, nahiz eta ukazinezkoa izan bien arteko antzekotasuna: txotxongiloaren gisako janzkera iluna zeraman emakumezkoak, neguko elurte trinko batez estalitako adatsa, kokotsa eta sudurra txotxongiloaren molde eta luzera berekoak, honek baino hortz batzuk gehiago, baina halere ez hutsuneak adina eta bizitza ezatsegin bat pairatu izanari zegokion aurpegi latz baten jabea. Joanesen hasierako nahasmena ulergarria izan zen beraz. Emakume gizenkoteari, mila ximurren artean ezkutaturik ziruditen bi puxtarri urdinak gainazalera azaldu zitzaizkionean Joanesi zorrozki begiratzeko, orduan konturatu zen azken hau, aurrean zekusan emakumea, pilulak eta kapsulak hartzea aholkatu zion erdi-sorgin, erdi-osagile berbera zela! Baina, nolaz azaldu ote zen han, Pragan? Ez al zien adierazi bere garaian, emaztea eta biei, ez zitzaizela batere atseginekoa gertatzen bidaiatzearen kontua?

“Bai, nire sendabelarren eragina ari duk jadanik leuntzen, aurpegia ez daukak hain zurbil eta begietako gorritasuna ere ari zaik ezabatzen, honenbestez ordu laurden baten buruan etxerako bidea hartzeko gertu izango haiz, bai, bai, nire belarrak miragarriak dituk eta, jiji, jiji!”, jarraitu zuen petrikiloak barrezka, beti ere Joanesi begira. “Andere, andere, sar zaitezke jada, zure senarra ikustera, ia-ia prest da eta!”, oihu egin zuen jarraian petrikiloak, burua biratuz, beste gela batean legokeen norbaiti arituko balitzaio bezala. Joanesek bere begirada harantz zuzentzean, berebiziko ezusteko pizgarria hartu zuen, izan ere, bere emazte xaloa agertu baitzen, beti bezain xarmant eta liraina. Joanesen bihotzeko taupada bakoitzak —zera, mamorro ponpakoak, zuzen esanez—, bazirudien bere aurrekoa harrapa zezakeela! Edozelan ere, arestian otu zitzaion burutapena baieztatzen zuen horrek, beste amesgaitz batean murgildurik zebilela, alegia; aurrekoak baino askoz ere ankerragoa horregatik, ahalik eta min gehien ernarazteko helburuarekin landua, kakalardo gohaingarritan bilakaturik iratzartzean, erabateko etsipena sortarazteko, ezbairik gabe. Zinez, Alaitzen agerpena benetakoa balitz, Joanesek ezin izango baitziokeen negarrari eutsi halako une hunkigarri hartan...

“Zer moduz, Jo?”, galdegin zion alegiazko Alaitzek Joanesi, beragana gerturatzen zen bitartean. Joanesek, senaz, bere eskumako mamorro oin batez saiatu zen begietan nabaritzen zuen hezetasuna lehortzen, hori egitean oster, itxaron zuen kakalardo bati legokiokeen oin iletsuaren orde, bere ohiko eskuineko eskua ikusi ahal izan zuen bere ikusmen eremuan! Nahiko zurturik,

Joanesek ameskeria hartan bera ere zomorro kiratsu bat ez zela ondorioztatu behar izan zuen. Zertzelada hura axolarik gabekoa zen alabaina, oinazea hasieran uste baino gehiago luzatuko zela soilik jakiteko baliagarria. Une batetik bestera bilakatuko zen intsektu-neurriarekin aldera zitekeen zehazpen hark izan zezakeen garrantzia! Egoera hondagarri eta galgarri hartan, itxaropenaren azken izpia ezkutatzera zihoan unean, Joanes, Franz Kafkari zegokion hausnarketa sakon batetaz oroitu zen: *“Ez inoiz etsi, itxaropenari eutsi: dena galdurik dakusazunean ere, barren-barrenetik indar berriak ateratzeko gai izango baitzara. Hala gertatuz gero, bizirik dirauzula esan nahiko du... Oraindik behinik behin!”*. Gogoeta honi esker edo, Joanes zertxobait berrindartu zen, bihotz-taupaden abiadura pittin bat makaltzeko ere gai izan zelarik, bihotzak bere tokitik hegan irten zedin baino lehen. Ahots lehor batez, “Pragan jarraitzen al dugu?”, galdegiten zuela norbaitek entzun ahal izan zuen orduan Joanesek. Ahalko balu, gauza berdina itaunduko zukeen berak ere. “Pragan? Ez, maitea! Baztango Bailarako basetxe batean gaude, Itsaso petrikiloaren egoitzan hain zuzen ere! Duela pare bat ordu etorri gara, ez al zara, bada, oroitzen, Jo?”, zioen Alaitzek. Joanesen buruari kea zerion, hitz haien edukiera irentsi ezinik. “Ez larritu, andere, oso arrunta da eta, bere onera etorri ondoren, lehen uneetan ezertaz ez oroitzea, eman dizkiodan senda-belarren ezinbesteko bigarren mailako eraginetako bat baita, jasango zituen haluzinazio edo irudikeriez gain; bospasei minututan guztiaz oroituko da, ez arduratu horregatik, jiji!”, azalpena eman zion Itsaso petrikiloak Alaitzi. Joanesek bere burua, errekako xirripa edo korrontearen aurka, ur-jauzi bat igo nahian zebilen izokin bat bezala zekusan, behin eta berriro ahaleginduaz, helburua lortzeko gai izango ote zen batere ziurtasunik gabe...

“Zure senarraren Pragari buruzko galdera, ziur telebista pizturik eduki dudalako izan dela, egiazki, arestian hiri horri buruzko dokumental bat eskaintzen zebiltzalakoan nago, litekeena da pairatu behar izan dituen haluzinazioak entzuten ari zenarekin nahastea, baina gorde sosegua andere, gizona laster izango duzu eta bere sasoirik onenean eta osoki sendaturik, nire hitza daukazu, jiji!”, jarraitu zuen petrikiloak. “Asko lasaitzen nauzu Itsaso, mila esker!”, erantzun zion Alaitzek. “Axola ez bazaizu, senarra guztiz onera datorkizun bitartean nire zereginekin jarraituko dut, badakizu: *gaurko jarduna, biharko ondasuna!*”, ihardetsi zuen Itsasok, sukaldeko gunerantz zihoan bien bitartean, eskuartean sekulako kiratsa zerien landare batzuk zeramatzalarik, sustrai eta guzti. “Noski, Itsaso, zuk jarraitu zure eginbeharrekin, nahiko denbora galdu duzu gutaz arduratzen eta!”, erantzun zion Alaitzek. Eta jarraian Joanesengana zuzenduaz: “Jo, maitea, oroitu zaitez, bada, nola etorri garen Itsasorengana, ea zure buruko min iraunkor eta jasangaitz hori osatzeko sendabide egokiren bat eman ote ziezagukeen ikustera, hainbat sendagileen eskuetatik igaro ostean inortxo ere ez baita gai izan osabide eragingarriren bat aurkitzeko eta! Gogoratzen al zara, ene kuttuna?”, galdegin zion, zertxobait arranguratuta oraindik bere senarra hain ahul ikusteaz...

Joanesek, iristen ari zitzaizkion datu eta xehetasun berri haiek etorri ahala irensten eta ulertzen saiatu arren, jostorratz bat mandioan bezain galdurik jarraitzen zuen. Hamaika jira-biren ondoren, ez ote zebilen bada, ameskeria berri baten erdian galbideraturik? Hainbat galdera sortzen zitzaizkion batera, ez zela bat berari ere erantzuteko gai. Nolanahi ere, nahiz eta sinestezina gertatu, denbora igaro ahala, bere gormututasuna asmatua izan zitekeenaren buruera bereganatzen zihoan, agian gehienez jota txikitan autismo apur bat soilik izan zezakeela oroitu nahian zebilen, gainontzekoa abiapuntu horretatik jaiotako

irudikeria hutsa izan zitekeelarik. Hala eta guztiz ere, gogoeta horretaz ez zegoen batere ziur, bere oroimenaren berreskuratze garabidea barearen mugimenduaren parekoa baitzen. Pragako bidaiarena ere amets hutsa izan ote zen? Zelako arrapaladako Alzheimer sinesgaitza berea! Erdi-sorginak Pragari buruzko dokumental bat telebistaz eskaini zutenaren aipamena egin zuenean, bere hitzen benetakotasuna egiaztatzeko aldartea izan zuen, bera zetzan aulkiko aitzineko horman, sabaitik gertu, apal batean zegoen txuri-beltzeko telebista zahar bat ikus baitzezakeen. Tramankuluaren ozentasuna doi-doi entzuteko moduan eta irudiak ere erabat itxuraldatuta ikusten ziren arren, antenaren matxura baten erruz ziurrenez, Joanesek garaiz ikusi ahal izan zituen Euskal Telebistako lehen kateko *"Bidaia Zoragarriak"* saioaren amaierako hitzak: *"Gure eskerrik onenak Txekiar Errepublikako Administrazio-agintariei Pragako hainbat tokietan filmatzen uzteagatik"*. Edonola ere, Joanesek kontu handiarekin jokatu behar zuela erabaki zuen, pairatu zituen logaitz oren ondoan...

Joanesek erdi-sorginarengan finkaturiko arreta areagotu zuen zerarren, bere emazteren jardunari jaramon egiteari utziz une batez: han zebilen sukaldean zabalera garaiera bezalakoa zuen emakume hura, belarren ura eta auskalo zer edabe gehiago prestatzen, mugimendu baldarrez mugituaz batera eta bestera. Gela osoan usain berezi bat zabalduaz irakiten zegoen lapiko bat zaintzen ziharduen. Harrikoa egiteko tokian, egurrezko kaiku anitz elkarren gainean metaturik ikus zitzakeen Joanesek, mahai gainean belar mota ezberdinez eginiko multzoak, lurrean labeko surako egur zati ugari eta otarretan mota orotako barazkiak: nahiz ondo heldutako tomate eta piper gorriak, nahiz neurri itzeleko leka eta patatak, besteak beste. Haruntzago babarrun beltzak lehortzeko sakabanaturik jarriak zoruan, zapi baten gainean. Goiko apaletan gazta zaharrak, usaintsuak, harrak ere izango zituzten barrenean haiek; behekoetan aldiz, neurri guztietako beirazko poto eta ontziak, gehienak isurkari orlegiz beteak. Azken hauetako batek erakarri zuen bereziki Joanesen arreta, kolore biziak igarri zitzaizkiokeen batek, hain zuzen ere: hara non ziren bere koloreetako pilulak! Petrikiloak kokotean ere begiak zituen nonbait, Joanesen gainbegirada ontzi hartara zuzentzen zela ohartuaz, "Gozoki hauek loritz nire ilobak ekarritakok dituk, Vienan edo Budapesten bidaiari izan zirenean, agian Praga bertakoak izan litezkek, oso gozoak dituk, nahi al duk bat? Ondo etorriko zaik eztarria zeharo lehor izango duk eta!", adierazi baitzion Joanesi, berak bere aldetik, pilula bat sartzen zuelarik ahora. "Ez, ez!", esan ahal izan zuen Joanesek, ozta-ozta, eztarria osoki minberaturik zuela jabetuz. "Bai, orain gazteak asko bidaiatzen ditek, ez duk lehen bezala; egiaz, niri bidaiatzearena inoiz ez zaidak erakargarria gertatu... Baina hau arestian ere azaldu diat, ezta? Adinaren kontuak, gero eta gehiago erreplikitzen nauk... Utikan, *Maliru!*", jarraitu zuen erdi-sorginak, azken hitzak bere ibileran gurutzatu zen katu beltz itzelari zuzendu zizkiolarik, oharkabean buztana zapaldu ondoren. Petrikiloak, Joanesi jaramonik egin gabe, gozoki poto batzuk eman zizkion Alaitzi, eztarria garbitzeko litxarrerri egokiak zirela eta senda belarren eragina samurragoa gerta zekion, senarrak aldi batean zehar hartu beharko zituela adieraziz, ahopean. Joanesek osteria, ez zioenez entzun, fidagaitz eta susmabera jarraitzen zuen erdi-sorginarekiko, gainera marruka eta buztana hankartean zuelarik aldendu zen katua izena *Maliru* zela entzutean, Joanesi berriro Pragako oroimenak jauzi zitzaizkion bat-batez, izan ere, huraxe bera baitzen amestutako jatetxearen izena! Xehetasun hark ezin zuen izan bat etortze hutsa

bakarrik! Huraxe itomen larria, ur-azpitik burua azaleratu ezina sortarazten zioena puzzleko zatitxo bakoitzaren artekatze lanak!

Itsasoari buruzko gogoeta hark, bere amesgaizto guztietan itsaso hantuaren agerrera etengabea izan zela birgogorarazi zion, hitzetik hortzera ohartu zelarik bera zetzan aulkiaren oreka ezan aurki zezakeela horren sorburua, egiazki, aulki kulunkari batean baitzegoen eserita, itsasoko uhinen menpe bailegoen. Ziur erdi-sorgina kulunkaulkia zarabandatuaz ibili zela jostagarri gisa, beronen higikera gelditzera zihoala nabaritu orduko, bertan zeramatzan amaigabeko bi ordu luze haietan zehar! Areago oraindik, aulki kulunkari hartan, gelako gainontzeko egurrezko altzari zaharkituetan bezala, pipiek jatordu ederrak egin zituztela —eta hala jarraitzen zutela!— agerikoa zen, agian kakalardoekin amestearen iturburua haietako baten bat ikustean zetzan, besterik gabe; kontuan hartzeko aukerak ziren, nahiz eta ez izan guztiz erabakigarriak, une hartan bizi zuena ameskeria hutsa ez zela baieztatu zezaketenak. Alabaina, iltzearen buruan mailukada batek adinako sendotasuna zuen zertzelada batek sinestarazi zion Joanesi egiazkotasunezko munduan zebilela, orenen buruan: sukaldean koipez ugertutako ezker horman eskegitako egutegian ageri zen eta gurutze bat gainean marraturik ez zuen lehen datak, hots, 2004ko apirilaren 11ak, hain zuzen ere! Hau da, horrek esan nahi zuen Pragarako bidaiaren eragilea izan behar zuen lehen ezkontza-urteurrena ospatu ahal izateko oraindik hiru hilabete eta sei egun geratzen zirela! Halaber, Pragako hoteleko 411. gelarekin amestearen atzean apirilak 11ko dataren nabardura ere antzeman zitekeen! Jainko errukiorra!

“Beno, aski da hainbeste hitz egiteaz, azter diezaadan ea erabat osaturik hagoen, jiji!”, petrikiloaren isekazko hitzek ekarri zuten Joanes gizaki hilkorren mundura. “Ondo hago, ez duk sekulan berriro buruko minik izango, Itsaso Zabala nauan bezala, jiji!” baieztatu zuen erdi-sorginak harrotasunez, Joanesen begiak sakonki ikertu ostean. “Joan zaitezketxe etxera, eta hik sabelerrea sentitzen baduk ez kezkatu, gauerako pasatuko zaik, osterantzean kamamila pixka bat hartu eta bihar goizean nahi bezain osasuntsu jaikiko haiz, eta orain itzul nadin nire eginbeharretara, badakizue: *gaurko jarduna...*”, ohikoa zuen leloarekin amaitu zuen petrikiloak. “Mila esker, Itsaso! Zenbat duzu kontua?”, galdegin zion Alaitzek. “Deusik ere ez, nik ez baitut diruagatik egiten lan!”, ihardetsi zion erdi-sorginak, irainduaren plantak eginez. “Nire eskuek ez dute sekulan dirua gisako gauza funsgaberik inoiz ukitu, ezta inoiz haztatuko ere! Zin dagit, Itsaso Zabala izena dudana bezala!”, jarraitu zuen petrikiloak hanpuruski, xaboi-burbuila baten antzera puztu-puztu eginda. “Baina emakume, mesedez, onartu iezaguzu eskupeko bat, gure esker ona adieraztearren!”, eten zion Alaitzek, apalki. “Beno, hainbeste tematzen zaretenez, *ejem*, onartuko nizueke eskusari bat sarreran dagoen itsulapikoan utziko bazenidate, *ejem*, baina garbi geratu dadila ez litzatekeela niretzako izango, inguruetako jende txiro eta behartsuentzat baizik, *ejem!*”, adierazi zuen azkenik petrikiloak, ozenki urruma eginez, eztarrian tupustean sekulako hazkura sortu balitzaio bezala. “Jakina, jakina, Itsaso!”, erantzun zion Alaitzek, bere aldetik Joanesek, “Dirurik ez diala ukitzen? Nori nahiko ote zioke ziria sartu sorgin honek? Noski, eskularruak erabiliko dizkik eta!”, pentsatu zuelarik, nahiz eta txintik ere esatera ez ausartu.

Era hartan, Itsaso petrikiloaz agurtu ondoren, bi ordu lehenago barrura igaro ziren bidetik irten aurretik, sarrerako arasa gainean zegoen eta amona mantalgorri baten itxura zuen zurezko itsulapikoan eskupeko on bat utzi zuen Joanesek —egiaz, oparoa legoke ona baino hobeto esanda—, zer gerta ere.

Oroimena zatika berreskuratzen zihoan arren, bazuen Joanesek oraindik elorri bat barren-barrenean sarturik arima osoki lasaitu ahal izatea eragozten zioena: "Izt" ingumaren arantza, hain zuzen ere! Nondik sortu eta nola sartu ote zen bere amesgaiztoetan? Nahiz eta jakin-mina asetzeagatik soilik izan, tamalgarria zeritzon Joanesek azken xehetasun hura jakin gabe handik joan behar izatea! Basetxe hartatik kanpora, erantzuna behin ere topatu ezingo zukeenaren uzkurdura zerabilkien buruan jira-biraka, dirusaria itsulapikoan sartu ostean bere begien parean horman esekirik zegoen koadroarekin aurkitu zenean; koadroak margo baten orde, diploma edo egiaztagiri bat biltzen zuen. Bihotza kolpeka zebilkiola senti zezakeen Joanesek. Bien bitartean, Alaitz atean zen jada Joanesi deika, egonezinez jartzear atzerapen bitxi hura zela eta. "Une bat, laztana!", adierazi zion Joanesek, bihotz-pilpirak abiadura zorabiagarri bat hartzen zutela nabarituaz. *"Baztango Petrikiloen Elkartearen Asmo Adierazpena"* zuen izenburutzat ziurtagiriak, hizki handitan. Jarraian honela zioen: *"Nik, Itsaso Zabala Teilabide Andereak, zin dagit gaixoekiko zintzotasunez jokatuko dudala nire ezagutza eta jakintza osoa gaitzak sendabidean jartzeko erabiliaz, eta horretarako bakarrik; eta inoiz ez, iruzurkeria eta trikimailuen bidez jendeari dirua ateratzeko."* Itsaso Zabala Teilabide, jakina, sorgin haren izen-abizenen hasierako hizkiak erabiliaz ernarazi eta bataiatu zuen izpiritua basetxera sartzeko unean, zuela pare bat ordu jada. Gainerako guztia azpikontzientearen eta nola ez, Itsaso sorginaren sator-lanaren eraginari ere zor zekiokeela erraz ondorioztatu zatekeen! "Koska guztiak berdindurik azkenean!", pentsatu zuen berekiko Joanesek. "Jo, hemen geratu behar al duzu bizitzen, ala?", Alaitzen oihuak lurrartu arazi zion Joanesi. "Ez, ez, horrelakorik ez esan ezta txantxetan ere! Banoa, banoa!", erantzun zion senarrak.

Basetxetik atera eta gero, Joanesek arreta handiz zaintzen zihoan bere oinkada, ematen zuen urrats bakoitzeko, oharkabean inolako mamorrorik zapaldu ez zezan, bazen – ez bazen. Une hartan Joanesek atzerantz begiratu izan balu, bere emaztearen aurpegi harrituaz gain —bere ibilera xelege hura zela eta—, landetxeko lohitutako leiho batean petrikiloaren ingerada nabarmendu ahal izango zukeen irribarre bihurri bat marrazturik zuelarik aurpegian... Joanes ordea ez zen biratu, handik ahalik eta lasterren urruntzea baitzen bere helburu eta jomuga bakarra une hartan! Egiazki, buruko min guztiak aldendu zitzaizkiola zirudien, baina hain denbora laburrean bere bizitza guztian baino izualdi gehiago eta zein baino zein bortitzagoak jasan zituenez, ez zekiokkeen inori sorgin haren eskuetatik igaro zedila inoiz opatu ahal izango!

-V-

Ibilgailua utzi zuten tokirantz maldan beherantz zihoazen bitartean, Joanes eta Alaitz aurkako noranzkoan zihoan beste bikote gazte batekin gurutzatu ziren; Itsaso petrikiloaren etxeaz galdegitean, Joanesek zuzen zihoazela azaldu zien. Mutilak nahiko artega zirudien, itxuraz buruko min handiak pairatzen omen zituen eta ezagun batzuk gomendatu ziotenez petrikiloaren eskuetan jar zedila, harantz zihoazen, nahiz eta berak sasimedikuen osabideetan sineste gehiegirik ez izan. Abesti haren doinua ezaguna zen Joanesentzat, areago oraindik, mutil harengan bere burua islaturik ikus zezakeen... Joanesek zerbait esan ahal baino lehen alabaina, Alaitzek lasai joan zedila, emaitzarekin pozik aterako zela

esanez adorea eman zion mutilkoari. "Nirekin amaitu orduko, badik bezero berri bat Itsaso sorginak!", zioen bere artean Joanesek. Alafede, itsaso hantuaaren oldarrak bezain etengabeak ziruditen Itsaso handi-putz eta harroaren aztikeriazko osabide-jarduera haiek... Are gehiago, itsasoak, bere olatu bortitzenak arduragabekien begiratzen dioten harkaitzen aurka zuzendu ohi dituen bezala, orobat, esan zatekeen Itsaso sorginak, bere arte erasokorrenak petrikiloen osabideetan usterik ez zutenengana bideratzeko ahalmen bereziren bat zuela!

Ibilgailuan sartu zirenean Joanes eta Alaitz, bikoteaz agurtu ostean, Joanesek kontaktuari eragin ziezaion baino lehen, bere emazteak "Beraz, Praga hiriarekin amesten ibili zara, e, Jo?", itaundu zion, jarraian "Ba, nahi baduzu, hurbiltzen ari zaigun gure ezkontza-urtemuga ospatzeko, joan gintezke bidaian harantz, zer diozu, Jo?", proposamena luzatu ziolarik. Motor-hotsak Joanesen ezusteko arao txiki bat estali zuen; jarraian, ibilgailua abian jarri orduko, Joanesek, museko jokalarari trebeenari inongo bekaizkeriarik ez lekioken asaldazinezko aurpegiarekin "Noski, noski, ene laztana!", erantzun ahal izan zuen...